



gazteen
parte-hartzerako
gida



Q Aurkibidea

<u>Parte hartu</u>	1 or.
<u>Talde bat sortu</u>	1 or.
<u>Talde ez formalak</u>	2 or.
<u>Talde formalak</u>	3 or.
<u>Talde bat garatu</u>	7 or.
<u>Talde ez formalak</u>	7 or.
<u>Talde formalak</u>	8 or.
<u>Informazioa eta lotura interesgarriak</u>	10 or.

argitaratzen du:



diru-laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte



Parte hartu

Hau da Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) argitaratu duen gazteen parte-hartzerako gida. Hurrengo orrialdeetan modu zuzen eta erakargarri batean parte-hartzerako gako batzuk emango dizkizuegu baina, hasteko, egin beharreko galdera:

► Parte-hartu, nik?

Bai, zuk eta zuek! Gauzak aldatzeko, erabakitzeko, dituzun ahalmenak praktikan jartzeko, lagunak ezagutzeko, kirola egiteko, besteei laguntzeko, zeure buruarekin hobeto sentitzeko, bidaiatzeko, lan-munduarekin zubi bat eraikitzeko, pentsatzeko, ekiteko, ondo pasatzeko... guzti horretarako parte-hartzeak du giltza!

► Bai baina... zertan?

Aukera asko dituzu(e) eskura:

- ❶ Talde, asanblada, kirol klub, elkarte edota erakunde ugari daude, mota askotarikoak eta helburu anitzekin. Arloak mugagabeak dira: kirola, kooperazioa, mugimendu soziala, politika, sindikalgintza, astialdia... Egun eragile guztiak biltzen dituen zerrenda eguneraturik ez dago, baina interneten bidez erraz aurkituko duzu bilatzen duzuna. Bestela Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat talde formalen kontaktuak dituzu eskuragai. Honekin batera, EGK-k eginiko zerrendak dituzu hemen eta hemen.
- ❷ Ideia berri bat daukazu(e)la? Dagoena zuek egin nahi duzuenarekin bat ez datorrela? Lasai! Zuek ere sortu dezakezue zuen taldea. Gida honetan jarraitu beharreko pausoak aurkituko dituzue.

Talde bat sortu

Hasi baino lehen, nola definitzen dugu eragile, entitate, elkarte... bat? Erdu agentziak 2006an emandako definizioa erabiliz: "*Pertsonak elkartuz osatutako **taldeak** dira, borondatez eratzen direnak talde-jarduera bat modu egonkorrean burutzeko; demokratikoki antolatzen dira, irabazi-asmorik gabe eta independenteak izaten dira *potere publikoekiko**". Hala, irabazi-asmorik gabeko sektorea, ekonomia soziala edo Hirugarren Sektorearen izeneko eremuan kokatzen dira.

Deskribapen honen baitan errealitate formal guztiak daude: elkarte arruntak, kirol klubak, alderdi politikoak, sindikatuak, fundazioak, gizarte ekimeneko kooperatibak eta elkargo profesionalak. Garaiak aldatzen ari dira eta horrekin batera baita parte-hartzeko moduak ere, horregatik gida honetan talde ez formalak ere kontuan hartu ditugu: dauden bi eredu nagusiak azaltzen ditugu, aukera bakoitzeko alde onak eta alde ez hain onak zintzoki deskribatzeko.

Jarraitu baino lehen, ohartxo bat: EGK EAE mailako Kontseilua izanda Euskadiko informazioa lehenetsi dugu, beste eremuak ahaztu gabe. Jasotako informazio oso baliagarria izan daiteke talde bat eratzeko edota garatzeko prozesuan, baina ez ahaztu zalantza baten aurrean zuek ere aurrea hartu dezakezuela: galdetu, deitu, idatzi, joan... lotsarik ez!

⚙️ Talde ez formalak (TEF)

Tramiteak egiteari uko egiten diozue? Momentuz ez duzue zuen izena erregistro ofizialetan eman nahi? Sortzen ari den dinamika ezin da paper batean laburtu? Orduan talde ez formal bat da zuen aukera. Hori bai, hartzen ditugun erabaki guztiakin gertatzen den bezala, ez formaltzeak ondorio onak eta ez hain onak izango ditu.

▲ **Alde onak:** erregistro ofizialetan erroldatuta ez egoteagatik, TEFek malgutasun gehiago daukate, nahiz eta barneko arauak eduki. Sorrera, aldaketak eta orokorrean kudeaketa guztiak azkarrago egiten dira. Berezko egoera baten aurrean TEF bat sortzea aukerarik errazena eta zuzenena da, osatzen duten pertsonen borondatea baino ez delako behar. Horregatik Europa mailan gero eta errealtate zabalagoa dira hauek (adibidez NIMBY¹ fenomeno, hiritarren asanbladak edota formalizatu gabeko kirol taldeak / talde kulturalak). Erregistratuta ez egoteak ez du esan nahi talde bat osatzen ez duzuenik: eratzen den unetik eragile bat existitzen dela onartzen da. Gainera, azken bolada honetan zilegi da diru-laguntza batzuk eskatzea talde formal bat izan gabe.

▼ **Alde ez hain onak:** existitu bai, baina ofizialki izenik eman gabe hainbat arlotan mugatuta ibiliko zarete (erakunde publikoekiko harremanetan, material eta gelen maileguan, diru-laguntza askotan, etab.). Esan bezala, diru-laguntza batzuetarako sarbidea izango duzue, baina zuen gain (pertsonalki) hartu beharko dituzue erantzukizun ekonomiko eta legal guztiak. Izan ere, legez erregistratuta ez egoteagatik zuen erantzukizuna beti izango da "pertsonala eta solidarioa". Honetaz gain, gaizki-ulertu edo desadostasun sakon baten aurrean zailtasun gehiago egon daitezke.

▶ Talde ez formal motak


- ❶ **Helburu kulturala** (aisialdia barne) duten taldeak: musika-taldeak, talde artistikoak, konpartsak, lonjak/lokalak, etab.
- ❷ **Helburu politiko edota soziala** duten taldeak: asanbladak, plataformak, mugimenduak, etab.
- ❸ **Kirola praktikatzea eta sustatzea** helburu duten taldeak.
- ❹ **Bestelakoak:** errealtate dinamikoa izanda gehiago agertuko dira.

⑤ **Sortzeko:** Kasu guzti horietan, TEF izateagatik, ez dago aurretik ezarritako halabeharrezko urratsik. Hori bai, taldearen nondik norakoak definitzea gomendatzen dizuegu:

Izaera: helburuak, balioak, praktikak, jarduera-motak...

Antolaketa:

- Nortzuk hartuko dituzten erabakiak eta nola: kide guztiak biltzen dituen batzarraz gain, ordezkaritza-organorik edo komisorik eratuko da ala dena era asanblearioan egingo da?
- Aurrekoarekin lotuta, ordezkapen-kargurik aurreikusten duzue?
- Maiztasuna: zenbatean behin elkartuko zarete?
- Aldaketak, hautaketak, balizko disoluzioa... nola egingo dira?
- Jaso behar den beste edozein ezaugarri.



¹ *Not In My Back Yard* mugimenduak, tokian-tokio sortutako mobilizaziorako plataformak, normalean erakunde publikoek ezarri nahi duten proiektu jakin baten aurka.

- **Gomendioa:** guzti hau “estatutuak/organigrama/antolaketa-eskema/akordioa” bezalako izenarekin dokumentu batean idatzita uztea gomendatzen dizuegu. Sinatzen baduzue balio gehiago izango du. Ahozko akordioak ere akordioak dira baina betearazteko berme gutxiago dituzte. Kontuz! Elkarte sekretuak ilegalak dira.

⚙ Talde formalak (TF)

Eratu nahi duzuen taldeari forma ofiziala eman nahi diozue? Erakundeekin harreman zuzena izateko prest zaudete? Proiektu on baterako diru-laguntzak eskatuko dituzue? Beste taldeekin sare bat sortzeko derrigorrezkoa da formalizatuta egotea? Zuentzako aukerarik onena, talde formalak! TFa sortzeko beti eskatuko dizuete egoitza soziala. Ez baduzue, kide baten etxea jartzeko aukera dago (egitekotan, ez komentatu).

▲ **Alde onak:** behin erregistratuta berme guztiekin arituko zarete. Barne mailan, zuen antolaketa dokumentuak ofizializatuta egongo dira. Kanpora begira, erakunde publikoekin interlokuzioa izateko, beste taldeekin sareak eraikitzeko (adibidez federazio bat), hitzarmenak sinatzeko, kontu-korronte bat irekitzeko, diru-laguntzak jasotzeko, materialak eta gelak maileguan hartzeko, zuen jarduera-esparruko eremu ofizialetan egoteko... talde gisa dituzuen eskubideak gauzatzea errazagoa da TF batekin.

▼ **Alde ez hain onak:** legezko epeak bete behar dira eta askotan paper gehiegi eskatzen dizkizuite. Oinarrizko dokumentuetan egiten diren aldaketak erregistratu behar dira baita ere. Gainera kudeaketa telematikoa ez dago beti eskura. Segun eta zer talde mota eratzen den kostu ekonomikoa egon daiteke. Diru-laguntzen eta paperen artean freskotasuna galdu eta formalismoetan erortzeko arriskua egon daiteke.

▶ Talde formal motak

- ① **Elkarteak:** asmo kulturala, soziala edota bestelakoa duten irabazi-asmorik gabeko taldeak. Gazte elkarte bat izateko bertako bazkideen adina 14 - 30 urte artekoa izan behar da. Izenean “Denominazioa + Gazte Elkarte” formula erabili behar da beti, estatutuen artikuluetan adin tartea argi utziz. Emakunderekin harremanetan egoteko eta honen diru-laguntzak eskatu ahal izateko emakumeen elkarte dela zehaztu.

⑤ **Sortzeko:**

Gutxieneko kopurua: 3 pertsona.

Derrigorrezko karguak: Lehendakaria, idazkaria eta diruzaina.

Derrigorrezko organoak: Batzar Nagusia. Honekin batera lehendakaria, idazkaria eta diruzaina organotzat jotzen dira baina normalean koordinatzeko Gobernu-organo kolegiatua² sortzen da (hautazkoa).

Derrigorrezko dokumentazioa: Inskripzio eskaera + Eratze-akta, bi ale + Bazkide sortzaileen NANen fotokopiak + Estatutuak, bi ale Informazioa eta ereduak hemen.

Non: Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Sailan.

⊕ **Besteak:**

- **Federazioak/Konfederazioak/Elkarteen Batasunak:** hainbat elkarteek osatutako erakundeak. Bazkideak ez dira pertsonak, elkarteak baizik. Zuen elkarteek bat egin nahi badute, jarraitu behar diren pausoen inguruko informazioa eta ereduak [hemen](#).
- **Konpartsak:** jaietarako taldeak. Elkarte moduan erregistratzen dira, helburu sozio-kulturalekin.
- **Lonjak/Lokalak:** gazteentzako biltoki pribatuak. Gero eta gehiago elkarte gisa erregistratzen ari dira, helburu kulturalekin.
- **Gobernuz Kanpoko Erakundeak:** izatez, GKEak elkarteak edo **fundazioak** izan ohi dira. Garapena, giza eskubideak edo ekologia dute helburu, besteak beste. Berezko erregistrorik ez dutenez, taldearen definizioan GKE izaera aipatzea gomendatzen da.
 - Herrialdeei edo gizataldeei garatzen laguntzen dihardutenak garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak (GGKE) dira. Euskadiko GGKEen koordinakundeak bere kide izateko hainbat betebeharrak ezartzen ditu. Informazioa [hemen](#).
 - Bestelako GKEak ere egon badaude. Adibidez, Harresiak Apurtuz etorkinei laguntza emateko GKE koordinakundea. Informazioa [hemen](#).
- **Elkargo edo kontseilu profesionalak:** elkargo profesional baten balizko sorrera Eusko Legebiltzarrean legez onartu behar da. Kontseilua sortzeko, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren dekretu bat beharrezkoa izango litzateke. Informazioa [hemen](#).
- **EAEko eremua gainditzen duten elkarteak/Estatu mailako elkarteak:** tasa bat ordaindu behar da. EAEn estatuko elkarte baten delegazio bat irekitzeko aukera ere badago. Barne Ministerioan erregistratzen dira. Informazioa [hemen](#).
- **Europa mailako interes taldeak:** elkarte, GKE, sindikatu eta beste eragileei zuzendua. Informazioa [hemen](#).

⊗ **Kirol klubak:** kirol modalitate bat edo gehiago praktikatzea eta sustatzea helburu duten irabazi-asmorik gabeko taldeak. Izenean "Denominazioa + Kirol Kluba" formula erabili behar da beti. Beste atal batean jarrita daude EAEn berezko erregistroa dutelako (Kultura Sailekoa) baina, orokorrean, prozedurak antzekoak dira.

Ⓢ **Sortzeko:**

Gutxieneko kopurua: 3 pertsona.

Derrigorrezko karguak: Lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria.

Derrigorrezko organoak: Batzar Nagusia, Administrazio-organoa (pertsona bakarrekoa: lehendakaria edo kolegiatua: Zuzendaritza Batzordea) eta Ordezkaritza-organo bat (lehendakaria).

Derrigorrezko dokumentazioa: Inskripzio eskaera + Eratze-akta, bi ale + Bazkide sortzaileen NANen fotokopiak + Estatutuak, bi ale
Informazioa eta ereduak [hemen](#).

Non: Online (Izenpe txartelarekin) edo [Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailan](#).

⊕ **Besteak:**

- **Kirol elkarteak:** entitate publiko edo pribatuen barruan eratzen diren kirol sekzioak. Zure entitateak kirol modalitate bat edo gehiago garatu nahi baldin baditu: jarraitu behar diren pausoen inguruko informazioa eta ereduak [hemen](#).
- **Kirol federazioak:** legez araututa daude eta honen ondorioz ezin dira era librean sortu. Zuen klubak edo elkarteak federatuta egon

nahi baldin badu hauek dira Euskal Kirol Federazioen Batasunak dituen aukerak. Federazio baten arduradunak bazarete eta barneko aldaketak egin nahi badituzue informazioa hemen.

- ④ **Fundazioak:** irabazi-asmorik gabe sortutako erakundeak, interes orokorreko xedeak dituztenak. Sortzeko gutxienez 30.000 euroko ondarea beharrezkoa da. Kopuru horretatik behera bidegarritasuna frogatzen duen ikerketa ekonomikoa aurkeztu beharko litzateke. Interes orokorreko xedeak (giza garapena, hezkuntza, zientzia, kultura...) betetzeko erabiliko da fundazioaren ondarea. Izenean “Denominazioa + Fundazioa” formula erabili behar da beti.

⑤ **Sortzeko:**

Gutxieneko kopurua: pertsona 1.

Derrigorrezko karguak: Fundatzailea(k).

Derrigorrezko organoak: Zaingo-batzordea (pertsona bakarrekoa: fundatzailea edo kolegiatua: 3 pertsona).

Derrigorrezko dokumentazioa: Eratze-eskritura (notarioa) + Eraketa inskribatzeko eskabidea + Izen bereko beste fundaziorik ez dagoela adierazten duen ziurtagiria + Estatutuak, bi ale + Onarpenak + Dokumentazio ekonomikoa. Ereduak hemen.

Non: Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Sailan.

⊕ **Besteak:**

- **EAEko eremua gaiditzen duten fundazioak/Estatu mailako fundazioak:** orokorrean, Hezkuntza Ministerioan erregistratzen dira. Informazioa hemen.

- ④ **Gizarte ekimeneko kooperatibak:** irabazi-asmorik gabeko kooperatibak. Merkatuak zaintzen ez dituen behar sozialak asetzea dute helburu, arlo sozialean (zerbitzu asistentzialak, hezkuntza, kultura...) eta ekonomikoan (baztertuta dauden pertsonen zuzenduta). Erregistroak kooperatiba txiki eta ez txikiak ezberdintzen ditu. Gutxienez 3.000 euroko inbertsioa beharrezkoa da. Izenean “Denominazioa + Gizarte Ekimeneko Kooperatiba Elkarte (txikia)” formula erabili behar da beti.

⑤ **Sortzeko:**

Gutxieneko kopurua: 2/3 pertsona.

Derrigorrezko karguak: Administrazioaile (administrazioaile bakarra edo lehendakaria eta idazkaria).

Derrigorrezko organoak: Batzar Nagusia, Administrazio-organoa (pertsona bakarrekoa: administrazioaile bakarra edo kolegiatua: Errektore Kontseilua) eta Zaintza Batzordea (100 bazkide baino gehiago daudenean).

Derrigorrezko dokumentazioa: Eratze-eskritura (notarioa) eta kopia + Eraketa inskriba-



- tzeko eskabidea + Izen bereko beste kooperatibarik ez dagoela adierazten duten ziurtagiriak + Estatutuak, bi ale + Beste dokumentazioa. Informazioa [hemen](#).

Non: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailan.

⊕ **Besteak:**

- **EAEko eremua gaitzen duten kooperatibak/Estatu mailako kooperatibak:** Enplegu Ministerioan erregistratzen dira. Informazioa [hemen](#).

- ⊖ **Alderdi politikoak:** iritzi eta helburu politiko jakin batzuk dituzten pertsonak biltzen dituen erakundea (elkartea). Soilik Barne Ministerioan erregistratu daitezke. Hauteskundeetan parte hartu dezakete.

Ⓢ **Sortzeko:**

Gutxieneko kopurua: 3 pertsona.

Derrigorrezko karguak: Idazkari nagusia, idazkaria eta diruzaina (gomendatua).

Derrigorrezko organoak: Gobernu- (Batzar Nagusia), Administrazio- (hautazko izena) eta Ordezkaritza- (hautazko izena) organoak.

Derrigorrezko dokumentazioa: Eskaera-idazkia + Akta publikoa (notarioa) estatutuekin, hiru ale. Informazioa eta ereduak [hemen](#).

Non: Barne Ministerioan.

⊕ **Besteak:**

- **Federazioak:** alderdi politikoek osatutako erakundeak. Informazioa [hemen](#).
- **Koalizioak:** alderdiek edota federazioek osatutako hauteskundeetarako bilketak. Informazioa [hemen](#).
- **Hautesleen taldeak:** hauteskundeetarako aurkezteko ekimenak, alderdia izan gabe. Gutxieneko sinadura kopurua bildu behar dituzte. Informazioa [hemen](#).

- ⊖ **Sindikatuak:** langileek osatutako elkarteak, beraien interes sozial, ekonomiko eta profesionalak defenditu eta sustatzeko helburuarekin. Hauteskunde sindikaletan parte hartu dezakete. Enpresetan edota lantokietan sekzio sindikalak eratzeko aukera ere badago.

Ⓢ **Sortzeko:**

Gutxieneko kopurua: 3 pertsona.

Derrigorrezko karguak: Idazkari nagusia, idazkaria eta diruzaina (gomendatua).

Derrigorrezko organoak: Gobernu- (Afiliatuen batzarra), Administrazio- (Osoko Batzordea) eta Ordezkaritza- (Idazkari nagusia) organoak.



- **Derrigorrezko dokumentazioa:** Eskara-idazkia, bi ale + Eratze-akta, hiru ale + Akta sinatzen duten pertsonen NANen kopia konpultsatuak + Estatutuak, hiru ale + Sustatzaileak besteren konturako langileak direlaren ziurtagiriak. Informazioa eta ereduak [hemen](#).
- **Non:** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailan.

⊕ **Besteak:**

- **Federazioak eta konfederazioak:** sindikatuek osatutako erakundeak. Informazioa eta ereduak [hemen](#).
- **EAEko eremua gainditzen duten sindikatuak /Estatu mailako sindikatuak:** Enplegu Ministerioan erregistratzen dira. Informazioa [hemen](#).
- **Enpresarien elkarteak:** arau berdinak dituzte. Informazioa eta ereduak [hemen](#).

Talde bat garatu

Taldea sortu eta gero, aurrera egiteko unea iritsi da. Jakina talde bakoitzak definitu behar duela bere jokamoldea, baina zeregin honetan laguntzeko jarraibide batzuk emango dizkizuegu.

Talde ez formalak

- ▶ **Lehenengo pausoak:** zuen taldea erregistratuta ez dagoenez, ez duzue tramite ofizialik egin beharko. Gorde eta zaindu idazten duzuen guztia, agian etorkizunean erabili beharko duzue eta. Denbora aurrera joan ahala taldea erregistratzea erabakitzen baduzue, jarraitu gida honetan jasotakoa.
- ▶ **Kudeaketa ekonomikoa:** TFek duten ahalmen ekonomikoa ez duzue izango, baina diru-laguntzetarako deialdi batzuek formalizatu gabeko taldeek aurkezturiko proiektuak onartzen dituzte, adibidez [Europako Batzordeko Erasmus + programak](#) edo [Gipuzkoako Foru Aldundiko herri-tarren partaidetzarako zerbitzua](#). Zuen gain (pertsonalki) hartu beharko dituzue erantzukizun ekonomiko eta legal guztiak. [Erakunde publikoen webguneetan](#) eta [Gizaldek](#), [Boluntak](#) eta [Elkarteak.infok](#) argitaratzen dituzten buletinetan diru-laguntzetarako deialdiak zabaltzen dira.
- ▶ **Talde kudeaketa³:** zuen berezitasunaren arabera garatuko duzue zuen TEFa. Aldez aurretik hitzartutakoa eta lortzen dituzuen akordioak betetzea oso garrantzitsua da. Orokorrean, talde mota hauek horizontalagoak izaten dira, eta zentzu honetan interneten informazio asko dago eskuragai. Adibidez Kataluniako [gida hau](#), gazte asanblada baten [memoria hau](#), 15-Mko [wiki hau](#) edo Mexikotik datorren [infografia hau](#) eta [bideo hau](#). EGK-k ere, hainbat gomendio zuzendu dizkie gazte taldeei: irakurri argitaratu dugun [txostena](#) eta ikusi [bideoa](#).

3 Irakurri ere [talde formalen kudeaketarako gomendioak](#).

⚙️ Talde formalak

► **Lehenengo pausoak**⁴: dokumentazio osoa erregistroan sartzen duzuenetik hiru hilabete pasa daitezke erantzun ofiziala jaso arte (normalean, gutxiago da). Ez ahaztu erregistrotik zuzenketak egitea eskatu diezazueketela. Balizko aldaketak egiteko zenbat eta denbora gehiago erabili orduan eta luzeagoa izan daiteke prozesua, horregatik ahalik eta lastarren egin!

Bitarte horretan hurrengo pauso hauek eman ditzakezue (gomendioa: 18 urtetik gorakoek eman ditzatela):

- ❶ **Behin-behineko IFZa (hautazkoa):** zuen lurraldeko Ogasunean. 036 eredia + Dokumentu guztien fotokopiak + Elkarteen erregistroan sartzeko eginbidearen jatorrizkoa eta fotokopia + IFZaren eskatzailearen NANaren fotokopia (Gobernu-organoko kidea izan behar du).
- ❷ **Kontu korrontea ireki (hautazkoa):** nahi duzuen bankuan/kutxan. Dokumentu guztien fotokopia (IFZren kopia barne) + Kontu korrontearen jabea(k) izatera baimentzen zaituzten elkartearen akta sinatuta (eredua hemen).
- ❸ **Erregistroan inskripzioaren konfirmazioa:** dokumentazioa konpultsatuta emango dizuete, erregistro zenbaki batekin. Elkartearen liburuak zigilatzeo aprobetxatu: Akta Liburua + Bazkideen Liburua + Kontabilitate Liburua. Liburu-dendetan edo estankoetan eros daitezke. Liburu bakoitzeko 100 orri zuri eta azala eramatea eta zigilatzea ere posible da (kontuz! Orrialdeak zenbatu behar dira eta elkartearen zein liburuaren izena agertu behar da orrialde guztietan).
- ❹ **Behin-betiko IFZa:** zuen lurraldeko Ogasunean. 036 eredia + Behin-behineko IFZaren jatorrizkoa trukatzeko + Elkarteen erregistroan izena emateko ebazpenaren jatorrizkoa eta fotokopia. Behin-behineko IFZa ez izatekotan ez ahaztu gainera: Dokumentu guztien jatorrizkoa eta fotokopia + IFZaren eskatzailearen NANaren fotokopia (Gobernu-organoko kidea izan behar du). Ogasunean beste kudeaketak egiteko aukera izango duzue.

► **Beste erregistroak/errolak (hautazkoa):**

- ❶ **Udal erregistroak:** udal batzuek berezko erregistroak dituzte. Erregistro hauek subsidiarioak dira eta inskripzioa egitea ez da derrigorrezkoa. Dena den udaletako dinamiketan parte-hartzeko eta diru-laguntzetarako sarbidea izateko nahitaezkoa da. Udal bakoitzak bere eskakizunak ditu, adibidez Bilbokoa, Donostiakoa eta Gasteizkoa. Kontuan hartu udal mailan inskripzioa egin ahal izateko estatutuek zuen egoitza soziala udalerririk horretan kokatua dagoela jaso behar dutela. Beste leku batean izatekotan, nagusiki zein udalerrietan eta lurraldeetan arituko zareten idatziz aipatu.
- ❷ **Euskadiko Gazteriaren Kontseilua:** EGK-k gazte eragileen topagune eta erabakigune autonomotzat funtzionatzen du. Kide edo behatzaile izateko eskatzen denaren informazioa hemen.
- ❸ **Gazte elkarteen errolda:** zaharkituta dago errolda hau, baina aterpekide txartela -taldeko modalitatean- doan lortzeko balioko dizue. Informazioa hemen.
- ❹ **Boluntariotzako Erakundeen Errolda Nagusia:** boluntariotzako erakundeen kopurua eta osaketa ezagutzea du helburu. Informazioa hemen.
- ❺ **Ikasleen elkarteen erregistroak:** zuen unibertsitatean (adibidez UPV/EHU) edo ikasketa-zentroan egon daitezke.

⁴ Orokorrean pauso berdinak dira TF mota guztietarako, baina gida honetan gazte elkarteei zuzendutako informazioa jaso dugu.

► Kudeaketa ekonomikoa:

- ❶ **Kudeaketa fiskala:** behin-betiko IFZa eskatzean, hainbat tramite egiteko eta informazioa lortzeko aprobetxatu ezazue. Ogasunetan tramite asko era telematikoa egin daitezke. Arau fiskalak aldizka aldatu egiten dira, gaizki ulertuak saihesteko zuen, zuen lurraldeko Ogasunarekin harremanetan jarri. Orokorrean, elkarteen bazkideen kuotak, dohaintzak eta diru-laguntzengatik elkarrekin ez dute zergarik ordaintzen.
 - Sozietateen gaineko Zerga: mozkinak zergapetzen ditu. Muga ez baduzue gainditzen Bizkaiko eta Arabako Ogasunek ez dute eskatzen. Gipuzkoako Ogasunak bai, urtean behin (uztailean), baina kasu gehienetan ez duzue ezer ordaindu beharko.
 - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: jarduera ekonomikoa zergapetzen du. Halakorik aurreikusten baduzue (zerbait saldu, formakuntzengatik kuotak kobratu), alta emateko beharra duzue. Kasu gehienetan, ez duzue ezer ordaindu beharko.
 - BEZa: kontsumoa zergapetzen duen zerga da. Ez baduzue aurretik definitutako jarduera ekonomikorik, salbuespena eskatu dezakezue. Kasu horretan, adibidez, zerbait erostean BEZa ordainduko duzue, egunero bezala. Salbuespenik gabe hiru hilabetean behin eta urtean behin aurkeztu beharko duzue (gomendioa: bigarren kasu honetan ondo informatu zaitezte edo aholkularitza baten zerbitzuak kontratatu).
 - PFEZa: pertsona fisikoek lotutako zerga. Langileak badituzue ordaindu beharko duzue (gomendioa: kasu honetan aholkularitza baten zerbitzuak kontratatu).
- ❷ **Kontabilitatea:** bazkideen kuota (txikia izanda ere) ezarri ala ez erabaki. 12 hilabetean behin aurrekontu bat egitea gomendatzen dizuegu. Edozein kasutan diru-sarrerak eta gastuak era egokian antolatzea beharrezkoa da. Kudeaketa korapilatsu baten aurrean Ogasunarekin edo agentzia batekin kontrastatu. Agian aholkularitza baten zerbitzuak kontratatu beharko dituzue.
- ❸ **Diru-laguntzak eta erakunde publikoekin hitzarmenak:** taldearen eremuaren arabera, bat edo gehiagorako diru-laguntzak eskatzeko aukera izango duzue. Deialdiak ezagutzeko adi egon erakunde publikoen webguneetara edo Gizaldek, Boluntak eta Elkarrekin infok argitaratzen dituzten buletinetara harpidetu zaitezte. Diru-laguntza jasotzeko ehuneko adierazgarri bat elkarrekin autofinantziatu behar duela eta justifikazio ekonomikoa aurkeztu behar dela kontuan hartu. Honetaz gain, erakunde publiko batekin hitzarmen bat sinatzen ere saiatu zaitezke (gero eta zailagoa da hau).

► **Talde kudeaketa:** gida honetan jasotzen diren taldeak oso anitzak dira, horregatik jarduerak askotarikoak izango dira. Dena den, edozein taldean epe laburreko, ertaineko eta luzeko helburuak daude. Azken finean eragile guztiek kolektibo bizia eta dinamikoa izatea lortu nahi dute, oraina eta etorkizuna dituen. Zentzu honetan EGK-k egindako gazteen parte-hartzeari buruzko ikerketan taldeen garapenerako hainbat gomendio jaso ditugu: irakurri txostena hemen eta ikusi bideoa hemen.

- ❶ **Antolatu:** zuen estatutuetan jasotzen dena errealitatera eramateko unea da. Denbora joan ahala estatutuak garatzen dituzten arauak ezarriko dituzue eta dagokienean, estatutuak aldatu eta barneko egitura berri (azken bi kontu hauek, erregistroan jakinarazi). Gomendioa: boluntariotza.net-en elkarteentzako koaderno praktikoa kontsultatu hemen.
- ❷ **Kudeatu:** ez ahaztu taldeak pertsonak osatzen dituztela. Kide berriak eta giro ona lortzeko erakargarriak izatea garrantzitsua da. Parte-hartzaile guztiek eskubideak eta bete-beharrak dituztela argi izan behar duzue: konpromisoa eta elkarrekiko konfiantza gakoak dira.
 - Boluntarioak: informazioa hemen.
 - Begiraleak: Astialdi foroak eskaintzen duen informazioa hemen.



- ③ Proiektatu:** edozein taldetan arlo teorikoa bezain garrantzitsua da egunerokotasuna: aurrera eramaten dituzuen dinamikak eta proiektuak, alegia. Zuen artean adostu eta lanarekin hasi. Adibide gisa [Gasteizko Udalak](#) eta [Erdur agentziak](#) egindako proiektuetarako gida hau.
- ④ Zabaldu:** egiten dena ongi komunikatu behar da, eta horretarako bide fisikoetaz gain, sare sozialak eta interneta tresna gisa erabili ditzakezue. Nola hasi jakiteko boluntariotza.net-en [komunikazio- koadernoak](#) irakurri.

📢 Informazioa eta lotura interesgarriak

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

EGK: Autonomia, 44 behea 48010 Bilbo 944436143 | Andia, 11 nagusia 20004 Donostia 943429767 | Ramiro de Maeztu, 15 behea 01008 Vitoria-Gasteiz 945220601
 Parte-hartze arloa: partehartze@egk.org | 688676099

Eusko Jaurilaritza

Elkarte eta fundazioen erregistroa (Herri Administrazio eta Justizia Saila): Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz | Gran Vía 85, lehenengo solairua 48011 Bilbo | Intxaurren 70 20015 Donostia | 012 (11:30-13:30) asociaciones-elkarteak@ej-gv.es | fundaciones-fundazioak@ej-gv.es | Irekita: 8:30-14:00

Kirol erakundearen erregistroa (Kultura Saila): Donostia 1, 01010 Vitoria-Gasteiz 945019505 | Gran Vía 85, lehenengo solairua 48011 Bilbo 9440316531 | Andia 13, 20004 Donostia 943022966 | [Kontsultak egiteko formularioa](#) | Irekita: 8:30-14:00

Sindikatu eta enpresariaren elkarten erregistroak eta kooperatibeen erregistroa (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila): Samaniego, 2 - 2º 01008 Vitoria-Gasteiz 945017030 | k-decelis@ej-gv.es | Gran Vía, 85 48011 Bilbo 944031216 | trabajobizkaia@ej-gv.es | Intxaurren, 70 - 2. solairua 20015 Donostia 943023224 | k-ariztondo@ej-gv.es

Izenpe (kudeaketa telematikoak): 902542542 | info@izenpe.com

Gazteria Zuzendaritza eta diru-laguntzak: 945019475 | gazteria2@ej-gv.es

Emakunde: 945016700 | emakunde@ej-gv.es



*Parte hartu duten gazte taldeei eta lotu-
retan agertzen diren erakunde, agentzia,
elkarte eta eragile guztiei: eskerrik asko
gida hau posible egiteagatik!*

Foru Aldundiak

Arabako Foru Aldundia (Ogasuna: 945181555)
Bizkaiko Foru Aldundia (Ogasuna: 901502000)
Gipuzkoako Foru Aldundia (Ogasuna: 902100040)

Estatu eta Europa maila

Alderdi politikoaren erregistroa eta elkarten erregistroa (Barne Ministerioa): Amador de los Ríos, 7 28071 Madrid
 Erasmus+: [EB](#) eta [Injuve](#)

Sareak, agentziak, baliabideak eta informazioa

Gazteakera eta Gazte informazio bulegoak (Euskadi)
Euskal Kirol Federazioen Batasuna (Euskadi)
Astaldi Foroa (Euskadi)
Elkarlan.coop (orokorra)
Gazteria Araba (Araba)
GazteBizz (Bizkaia)
Gipuzkoan gazte eta Gipuzkoako gazteria (Gipuzkoa)
Elkarteak.info (Araba eta orokorra)
Bolunta (Bizkaia eta orokorra)
Gizalde (Gipuzkoa eta orokorra)
Boluntariotza.net (orokorra)
Canal solidario eta Soluciones ONG (orokorra)